

Funtsezko baliabideak

Nola erakarriko dituzue bezero berriak?

Bezero berriak erakartzeko, honako estrategia hauek erabiliko ditugu:

- **Marketin digitala:**
 - Sare sozialetan kanpainak egitea, bereziki nekazaritzarekin lotutako sektoreetan.
 - Google Ads eta SEO tekniken bidez gure webgunearen ikusgarritasuna handitzea.
- **Erakusketak eta azokak:**
 - Nekazaritza eta abeltzaintza azoketan parte hartzea, gure produktua modu zuzenean aurkezteko.
- **Sustapen-eskaintzak:**
 - Lehen eskaeretarako deskontuak eskaintzea.

Horrela, gure produktuaren balio erantsia ezagutaraziko diegu ganaduzaleei.

Nola mantenduko dituzue bezeroak?

Bezeroak gurekin pozik egon daitezen, harreman pertsonalizatua eta eraginkorra eskainiko diegu, jakina, haien beharretara egokitua.

1. Bezeroarentzako arreta 24/7: edozein arazo edo galdera konpontzeko prest daukagu talde bat.
2. Produktuek hilero eguneraketak izango dituzte errendimendu hobe eta handiagoa bermatzeko.
3. Bezeroek beren erosketetan eskaintza eta deskontuez gozatzeko aukera izango dute. Enpresa gisa daukagun helburuetako bat bezeroa pozik egotea da, horregatik ekonomikoki lagunduz gu gozatzeko aukera izango dute eta, jakina, gozatu ahal izango ditugu.

Nola egingo dituzue bezeroek hazten jarraitzea?

Bezeroen eta erosketen hazkundera bermatzeko, estrategia hauek erabiliko ditugu:

- Etengabeko salmenta-eguneratzeak aplikatuko ditugu, hau da, hobekuntza eta desberdintasunekin produktu berriak gehituko ditugu. Txipak eta tabletak salduko ez ezik, datuak aztertzeako tresnak ere eskainiko ditugu.
- Beste estrategia bat bezeroek elkarrekin esperientziak partekatzeko eta abeltzaintzan dituzten arazoak partekatzeko komunitateak sortzea izango da.
- Era berean, bakoitzak bere iritzia partekatu dezake webgunean, modu honetan akatsak konponduko ditugula eta gure produktu eta zerbitzuak hobetu ahal izango ditugula ziurtatuko dugu. Horrela, bezeroen inplikazioa areagotuko dugu eta gure negozioaren hedapena sustatuko dugu.